

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5704

EBAZPENA, 2021eko urriaren 27koa, Kulturako sailburuordearena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntzak emateko dena, 2021-2023 aldirako.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez (maiatzaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 100. zk.), Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntza-deialdia arautu zen, 2021-2023 aldirako, eta dirulaguntza horiek emateko araubidea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 9. artikuluen arabera, 2021eko ekainaren 24an amaitu zen.

Agindu horren 14. artikuluan aurreikusitako balorazio-batzordea 2021eko uztailaren 19an bildu zen, eta, eskabideak baloratu ondoren, horiek emateari buruzko ebazpen-proposamena egin zuen, balorazio-irizpideak ezarrita aginduaren 16. eta 17. artikuluen arabera.

Balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 18. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ez onartzea I. eranskinean adierazitako eskabideak, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Bigarrena.— Dirulaguntzak ematea II. eranskinean zerrendatzen diren pertsona eta erakunde eskatzaileei, zehazten diren zenbatekoen arabera. Diruz lagun daitekeen zenbatekoa da, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, dirulaguntza-aginduaren 2. artikuluen arabera diruz lagun daitekeena.

Hirugarrena.— Dirulaguntzak ukatzea III. eranskinean zerrendatzen diren pertsona eta erakunde eskatzaileei, puntuazio nahikorik ez dutelako.

Laugarrena.— Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Bosgarrena.— Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2023ko abenduaren 31n bukatuko da, dirulaguntza haiek arautzen dituen aginduaren 7. artikuluekin bat etorritik. Dena dela, diruz lagundutako jarduerak 2021eko urtealdian hasi behar dute edo dagoeneko hasita egon behar dute.

Emandako dirulaguntzak justifikatu, likidatu eta ordaintzeko, aginduaren 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, data hauetarako justifikatu beharko direla:

– 2021ean gauzatzekoak diren jarduerak: 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen.

– 2021-2022 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2021ean gauzatutako jarduerak 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2022an gauzatutako jarduerak, berriz, 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen.

– 2021-2023 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2021ean gauzatutako jarduerak, 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2022an gauzatutako jarduerak, 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta 2023an gauzatutako jarduerak, 2024ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko, eskabidearekin batera aurkeztu den aurrekontua hartuko da ardatz, eta, horrekin batera, aginduaren 24. artikuluan ezarritako gainerrako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu honen babesean eman beharreko dirulaguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

– Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren herena ordainduko da, behin 19 a) artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

– Gainontzekoa ebazpen honen II. eranskinean ezarritako zatikatzearen arabera ordainduko da, gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, bat etorritik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluekin, herritar orok horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 27a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

I.1.– Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta ez dauden eta Babes Bereziko edo Ertaineko Kultura-Ondasun deklaratzeko espedienterik ez duten elementuetan esku hartzeagatik. Baldintza hori aginduak eskatzen du:

Eskatzailea	Jarduera
Asociación Pedagógica Mendibil	Anaka haur eskola y centro de formación Mendibil
Gaubeako Udala	Puesta en valor del Castillo de Astúlez

I.2.– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 3.3.a) eta e) artikuluan jasotako kontserbazio-, hobekuntza-, zaharberritze- edo hondeaketa-jarduketek osatzen dituzte nagusiki, eta Lurralde Historikoetako Foru-Aldundiei dagokie haien eskumena, aginduaren 1. artikuluan aurreikusten den bezala.

Eskatzailea	Jarduera
Zegamako Udala	Altzibar teileraren gizarteratzea

I.3.– Eskatzaileak ez baditu betetzen Aginduaren 3. artikuluan dirulaguntzen hartzailleentzat ezarritako baldintzak:

Eskatzailea	Jarduera
Guarrochena Aranburu, Beñat	Plan de acción para utilización de Grandes Molinos Vascos y el conjunto patrimonial adyacente

I.4.– Eskabideko dokumentazioa ez zuzentzeagatik aginduaren 13.2 artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera.

Eskatzailea	Jarduera
Elorrioko Udala	Valorización del templo y la necrópolis de Argiñeta
Galdakaoko Udala	Memoria historikoaren ibilbideak: Bekea-Bekelarre

2021eko azaroaren 9a, asteartea

II. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Jarduera	Puntuak	Zenbatekoa guztira	Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa	Emandako Zenbatekoa	2021	2022	2023
Agiri Asociación	Puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica de Armañón	92,12	88.271,40	88.271,40 ³	42.816,00	14.272,00	14.272,00	14.272,00
Aranzadi Zientzia Elkarte	San Adrian - Lizarrate. Bidean geroa eraikiz- construyendo un futuro en el camino	85,00	174.240,00	174.240,00 ³	104.820,00	34.940,00	34.940,00	34.940,00
Asparrenako Udala	Recuperación y puesta en valor del Castillo de Marutegi	82,95	54.198,01 ¹	54.198,01 ³	27.122,00	9.040,67	9.040,67	9.040,66
Balmasedako Udala	Puesta en valor y recuperación del cerro del Castillo de Balmaseda	84,65	253.997,00 ¹	209.914,88 ⁴	116.775,00	38.925,00	38.925,00	38.925,00
Berneoko Udala	Alde Zaharreko argiteri monumental Arana Goiri tar Sabinen enparantza	66,50	48.400,00	48.400,00 ³	22.779,00	7.593,00	7.593,00	7.593,00
Durangoko Udala	Reparación de patologías y consolidación estructural del pórtico de Santa María de Uribarri	94,00	687.518,71 ¹	687.518,71 ³	199.583,00	66.527,67	66.527,67	66.527,66
Erandioko Udala	Torre Martiartu	77,00	159.435,21	159.435,21 ³	86.886,00	28.962,00	28.962,00	28.962,00
Gamiz-Fikako Udala	Gamizmendi, puesta en valor y sensibilización social del Cinturón de Hierro	69,00	72.358,00	54.208,00 ⁵	26.472,00	8.824,00	8.824,00	8.824,00
Gernika-Lumoko Udala	Proyecto de cubrición de la cubierta del refugio antiaéreo de Astra	76,51	387.467,41 ¹	355.068,45 ⁶	162.449,00	54.149,67	54.149,67	54.149,66
Getariako Udala	Getariako Alde Zaharreko mendebaldeko gunea errekupeatzea. 3. fasea	65,00	143.819,17 ²	143,819,17 ⁷	66.162,00	22.054,00	22.054,00	22.054,00
Lekeitioko Udala	Mendieta ontziolaren birgaitze-lanen II-III faseak eta balioan jartzeko erabilera-plana	87,00	619.724,74 ¹	619.724,74 ³	184.721,00	61.573,67	61.573,67	61.573,66
Muskizko Udala	Puesta en valor y difusión del cargadero del Castillo, cotos mineros y Camino de Santiago	71,71	392.458,87	392.458,87 ³	152.257,00	50.752,33	50.752,33	50.752,34
Navaridaseko Udala	Proyecto de rehabilitación integral del Palacio-Casa Sodupe y centro de interpretación del poblado del Alto de Castejón, III fase	70,00	76.486,36	76.486,36 ³	37.893,00	12.631,00	12.631,00	12.631,00
Valle de Trápaga-Trapagarango Udala	Recuperación del Caserío Aiestaran. Fase 4	64,67	28.094,70	28.094,70 ³	8.573,00	2.857,67	2.857,67	2.857,66
Valle de Trápaga-Trapagarango Udala	Estudios previos de puesta en valor del patrimonio urbanizado y edificado del CM de La Arboleda y rehabilitación del entorno del kiosko	83,67	146.343,45	119.723,45 ⁸	57.773,00	19.257,67	19.257,67	19.257,66
Vitoria-Gasteizko Udala	Valorización interior del Palacio Maturana-Verastegui	75,37	409.999,79 ¹	409.999,79 ³	160.028,00	53.342,67	53.342,67	53.342,66
Zalduondoko Udala	Proyecto de rehabilitación de bolera para espacio gastronómico	72,00	16.093,00	16.093,00 ³	8.201,00	2.733,67	2.733,67	2.733,66
Zallako Udala	Actuaciones destinadas a la puesta en valor del Castro de Bolunburu	73,52	36.400,01 ¹	36.400,01	15.610,00	5.203,33	5.203,33	5.203,34
Zallako Udala	Proyecto de actuaciones encaminadas a la puesta en valor del Palacio de la familia Urrutia. Conjunto de la Mella	67,38	204.369,00	204.369,00 ³	85.838,00	28.612,67	28.612,67	28.612,66
Zambranako Udala	Proyecto de puesta en valor y/o de recuperación del tejido urbano de la Villa de Portilla	87,52	225.152,30 ¹	225.152,30 ³	135.840,00	45.280,00	45.280,00	45.280,00
Zeberioako Udala	Puesta en valor y difusión el Cinturn de Hierro en el aárea protegida de Kantara	65,00	25.289,00	21.054,00 ⁹	9.686,00	3.228,67	3.228,67	3.228,66
Zeraingo Udala	Larraondoko zerrategiaren balioan jartzea eta zabaltzea	72,00	64.372,00	64.372,00 ³	32.802,00	10.934,00	10.934,00	10.934,00
Basterra-Serna CB	Reutilización de edificio Casa armera de los Gobeco - residencia tercera edad Palacio de la Burulleria	75,00	1.168.332,46	601.650,00 ¹⁰	159.243,00	53.080,97	53.080,97	53.081,06

Eskatzailea	Jarduera	Puntuak	Zenbatekoa guztira	Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa	Emandako Zenbatekoa	2021	2022	2023
Bilbao Bizkaia Museoak S.L.	Proyecto para la intervención integral arquitectónica y museográfica de Bilboko Euskal Museoa	85,45	519.546,16	429.376,99 ⁴	181.430,00	60.476,67	60.476,67	60.476,66
Donostiako Goizaindegia	Donostiako Artzai Onaren Katedraleko ekialdeko fatxada, beirate eta estalkien zahar berritzeko proiektua	82,00	129.954,00	129.954,00 ³	75.419,00	25.139,67	25.139,67	25.139,66
Fundación Punta Begoña	Refuncionalización de los anejos al salón de representación en Galerías Punta Begoña	86,00	176.560,97	145.918,16 ⁴	88.815,00	29.605,00	29.605,00	29.605,00
Hotel Palacio de Luko S.L.	Ejecución y dirección de obra de rehabilitación y reutilización del Hotel Palacio de Luko	80,00	533.780,91 ¹	337.283,35 ¹¹	150.007,00	50.002,33	50.002,33	50.002,34
GUZTIRA			6.842.662,63	5.833.184,54	2.400.000,00	800.000,00	800.000,00	800.000,00

1 Jardueraren hasierako zenbateko osoa, kalkuluan izandako akatsagatik edo BEZa kostu osoan sartzeko zuzendutakoa.

2 Deialdiaren aginduaren 15.1 artikulua aplikatuz araztu den jardueraren hasierako zenbateko osoa.

3 Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean (BEZa barne) sartutako jarduera guztiak.

4 Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean jasotako jarduera guztiak, BEZik gabe.

5 Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan jasotako balioa nabarmentzeko jarduerak, BEZa barne, bisitak eta argitalpena izan ezik.

6 Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan (BEZa barne) sartutako proiektua eta estaldura-obrak. Ez dira diruz laguntzeko modukotzat jotzen sarbide berriari dagozkionak, ez baitute eragin zuzenik bunkerrari balioa emateko orduan.

7 Diruz lagunduko dira Haitzeko kalea urbanizatzeko aurkeztutako aurrekontuan sartutako obra guztiak, BEZa barne. Aurkeztutako hasierako aurrekontutik kendu dira parkearen urbanizazio-obren proiektuari, obrei eta zuzendaritzari buruzko kapitulu guztiak, oraindik ez baitago adostasunik jabetzarekin Udalak lurzatiak lagatzeko/eskuratzeke.

8 Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan jasotako jarduera guztiak, BEZa barne, salbu eta obra-zuzendaritzako eta obra-exekuzioko zerbitzu-sariak, kioskoak obrak ez baitira sartzen aurkeztutako proiektuan.

9 Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan (BEZa barne) sartzen diren balioa nabarmentzeko jarduerak, sozializazio-partidak izan ezik.

10 Diruz lagunduko dira 2.a) artikuluan berrerabilpen-jarduerarako ezarritako diruz laguntzeko moduko kontzeptuekin bat datozen eraikineko obrak (eraikina berrerabilpena eta obraren zuzendaritzara egokitzeko barneko instalazioak eta esku-hartzeak), BEZik gabe. Proiektuaren idazketa baztertu da, 2020an egin baitzen.

11 Diruz lagunduko dira 2.b) artikuluan berrerabiltzeko jarduerarako ezarritako diruz laguntzeko moduko kontzeptuei dagozkien kapituluak (eraikina berrerabiltzeko eta obrak zuzentzeko barneko instalazioak eta esku-hartzeak), BEZik gabe.

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

III.1.- Agindu arautzailearen 15. artikuluan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa (60 puntu) ez lortzeagatik:

Eskatzailea	Jarduera	Puntuak
Gernika-Lumoko Udala	Proyecto de reforma y rehabilitación del edificio de las escuelas públicas y en sus entornos urbanos, en la realización de una biblioteca municipal y la creación del nueve eje de comunicación accesible	21,98
Lezamako Udala	Reforma de la cubierta y fachadas de la Ermita de la Cruz	37,50
Mutiloako Udala	Errotatxo eraikina balioan jartzeko (aldaperoa egokitu, dibisioak egin, luminariak eta berokuntza eta aireztapena)	51,50
Oiartzungo Udala	Beloaga erdi aroko Gazteluaren ondarea gizarteratzeko eta hedatzeko egitasmoa	52,50
Bergarako Udala	Bergarako Hirigune Historikoan kokatzen diren Xabier Maria Munibe eta Ostetako oinezko bidean ur zikinen kolektorean dagoen matxura konpontzeko proiektua	57,50
Ezkio-Itsasoko Udala	Mandubi zelaiko trikuharriaren dibulgazio proiektua	52,50
Getariako Udala	Getariako harresiaren trazatua errekuuperatzea	54,50
Inklusart Kultura Integrala	Dantz Point: puesta en valor y difusión del patrimonio de la CAPV	49,98